

# Kaleak zeluloidez blai

“Zinema kalean” egitasmoak, ohi legez, azken sasoiko zinemarik arrakastatsuena ezagutzeko parada eskainiko du uda honetan ere. Hala, aste honetatik abuztuaren amaiera arte, zinema-genero ezberdinetako hainbat film izango dira ikusgai auzoetan. Jarraian, proiektatuko diren film guztien nondik-norakoak. Film guztiak 22.30ean izango dira.

## Marrazki bizidunak Loiolan

Animazioa ulertzeko bi eredu arras ezberdin miresteko aukera izango da asteburu honetan Loiola auzoko Eliza kalean. “El planeta del tesoro” Walt Disneyren marrazki bizidunetako ohiko ekoizpen hanpatua da. Stevensonen “Altxorraren Uhartea” abenturazko eleberrri ederra espazioan girotzen duena. Ikusgarria, baina artifiziala. “Chihiroren bidaia”, ordea, Hayao Miyazaki maisu japoniarraren azken perla iluna da. Natura, fantasia eta gizatasuna irudimen handiz uztartzen dituen marrazki bizidunetako film eder honek, Berlingo



Zinemaldiko Urrezko Hartza nahiz Animaziozko Film Onenaren Oscar Saria ere bereganatu ditu. Gainera, euskaraz ikus ahal izango da.

**Ekainak 27:** “Chihiroren bidaia” Zuz: Hayao Miyazaki. (2001, Japonia).

**Ekainak 28:** “El planeta del tesoro” Zuz: John Musker/Ron Clements. (2002, AEB)



## Irria nagusi Grosen

Ukitu gazi-gozoko komedia atsegirik ez da faltako Groseko Kursaal terrazan. 60ko eta 70eko hamarkadetan FBIko agenteak erotu zituen iruzurgile irudimentsu baten bizipenak ditu oinarri. Spielberg handiak “Atrápame si puedes” finean. Sandra Nettelbeck zinemagile alemaniarraren “Deliciosa Martha” filma ezezagun samarra bada ere, aspaldi honetan estreinatu den komedia erromantikorik txukunena da. Gomendagarria oso. Barre egiteko filmik aproposena, baina, “El otro lado de la cama” komedia da.

**Abuztuak 1:** “Atrápame si puedes”. Zuz: Steven Spielberg (2002, AEB).

**Abuztuak 2:** “El otro lado de la cama”. Zuz: Emilio Martínez Lázaro (2002, Espainia).

**Abuztuak 3:** “Deliciosa Martha”. Zuz: Sandra Nettelbeck (2000, Alemania).

## Fantasia eta beldurra Intxaurrondon



Beldurrezko generoaren maitale sutsuenak asetzeko moduko filmak izango dira ikusgai Intxaurrondoko Gabriel Celaya plazan. Hideo Nakata kultuko zinemagilearen “Ringu” apartaren “remake” deskafinatu da “The Ring”. “Señales” ere beldur psikologikoaren alorrean sar daiteke, baina itxurosoagoa da, “Sixth

Sense” laudatuaren kalitate mailatik urrun samar dagoen arren. Jaime Balagueró kataluniarraren “Darkness” iluna, aldiz, suspensea eta hemoglobina nahasten dituen “thriller” entretenigarria da. Bideojokoak atsegin baldin badituzue, baina, “Resident Evil” da aukerarik onena.

**Uztailak 16:** “The Ring”. Zuz: Gore Verbinski (2002, AEB).

**Uztailak 17:** “Resident Evil”. Zuz: Paul Anderson (2002, AEB).

**Uztailak 18:** “Señales”. Zuz: M. Night Shyamalan (2002, AEB).

**Uztailak 19:** “Darkness”. Zuz: Jaime Balagueró (2002, Espainia).